

Kultura ekoizpena Erabilera anitzeko espazioa



Mesedeetako Kaia, 1



944151306



bilborock@bilbao.eus



www.bilbao.net/bilborock
fb/bilborock
@ bilborockbilbao



AZALPENA

NORTZUK GARA Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailaren barruko espazio bat. Gazteriarentzako kultura bilgunea.

GURE LANA gazteriaren intereserako diren proiektuak kudeatu eta sustatzen ditugu. Alokairu gela ere bagara; edozein sustatzailek bere kontzertu, antzerki lan, kongresu eta jarduerak antola ditzake kulturaren arlokoak batez ere.

ESPAZIOA Mesedeetako Komentuaren eliza ohia da, kulturgune bihurturik. Erabilera anitzeko gela bat du 326 lagunentzako tokiarekin, zutunik, eta 200entzat, eserita, entsegurako 7 gela soinutik isolatuak, Lab Gela bat neurri txikiko batzar edo tailerretarako, 20 lagunentzako tokiarekin.

AUZOAN GAUDE 1997tik.

HAUEKIN ARITU GARA ELKARLANEAN Sarean // Wikitoki eta kultura-sustatzaile ugarirekin.

SAREARI ESKAINTZEN DIOGU

ESPAZIOA: Kultur-gune osoa, erabilera anitzeko gela, entsegu-gelak eta Lab Gela.

JARDUERA MOTA: Nahiz eta espazioa kontzertuetarako egokituta egon, antzerki lanak, hitzaldiak, kongresuak, prentsaurrekoak, arte erakusketak, zinema eta abar ere hartzen ditugu.

TRESNAK/BALIABIDEAK: Langileak, soinu-eta argi-ekipamenduak espazioan egin nahi diren jarduerak guztietarako. Baita ere, zabalkunde handia, doan: kartelak, flyerak, newsletterak eta sare sozialak.

GONBIDATZAILEAREN LAGUNTZA: Lau profesional, bai sustatzaileei bai azkeneko erabiltzaileei laguntzeko.

ERABILTZEKO AUKERA (¿NOIZ?): Gela libre badago, erreserba daiteke. Deitu eta galde ezazu, eta egun eta ordutegi zehatz baterako gorde.

AUZOARENGANDIK BEHAR DUGU

ESPAZIOA: Harreman handiagoa izan nahiko genuke auzoko enpresa eta elkarteekin, bere ekitaldietan parte hartu, eta gurea espazioa eskaini gurearen moduko tokia behar dutenei. Bilborock bilgune egokia da bertan ekitaldiak antolatu nahi dituzten pertsona zein enpresentzat.

JARDUERA MOTA: Gurpilean integratu eta gure auzoko agenteen ekitaldiak jaso.

TRESNAK/BALIABIDEAK: -

GONBIDATZAILEAREN LAGUNTZA: Partaidetza.

ERABILTZEKO AUKERA (¿NOIZ?): Beti.

